



“Donostiari begira” erakusketa, berriro irekita

Urgull mendia, hiriaren bihotzean kokatutako muinoa, itsasoari eta hiriari begira dagoena, oso maitatua da donostiarren artean. Gune natural hau hiriko bilakaeraren lekuko paregabea da, oraindik orain historiaren aztarnak dituena, bide eta fortifikazio sare bat barne, ahaztu gabe, donostiar askok “gatzelua” bezala ezagutzen dutela. Mota gatzelua talaia bikaina izan da eta da gaur egun ere, eta bertan gure ondarea jasotzen duen etxea dago; Historiaren Etxea, 2007az geroztik zabalik dagoena.

Donostiari begira erakusketa, berriro ere zabalik da. Erakusketak Donostiaren historian zehar ibilbidea egiten du, bere bilakaera ekonomiko, soziala, urbanistiko eta kulturala jasoaz, euskal identitateari erreferentzia eginaz. Erakusketa, beraz, aukera aparta da gure izena eta izanera gerturatzeko, eta gure historia garaikidean sakontzeko.

Donostiarrei eta bisitan etortzen direnei zabalik dago Historiaren Etxea. Azken urteotan lagun ugari pasa da Urgulletik. Urteko 100.000 bisitari ditu batz bestea. Udaberriko oporretan eta uda garaian ekitaldi bereziak antolatzen dira, eta eskaintza didaktiko propioa ere badu. Zentzu horretan, aukera bikaina da gazteak gure historiara hurbiltzeko, belaunaldi berriek ere hiriaren historia ezagutu dezaten, ikasiz eta ondo pasatuaz.

Erakusketa, abenduko itxieraren ostean, aberastu egin da hainbat gune berri egin direlarik, beti ere, bertan jasotako ondarea erakargarri egiteko erronka abiapuntu hartuta. Funtsean erakusketaren egitura eta xedea mantendu da, eta zenbait ataletan edukiak eguneratu dira, bereziki, hiriaren erreketa, suntsiketa eta berreraikuntzaren bigarren mendeurrenaren harira

sortutako materiala ardatz hartuta. Gauzak horrela, mendeurrenarekin batera sortuta zenbait ikusentzunezko erakusketan txertatu dira modu egonkorrean ikusgai izateko.

Batetik, 200 bideo instalazioa, hiriko 200 gazteren ahotsean hiriaren iragana, oraina eta etorkizuna ikuspegi ezberdinetatik ezagutzeko aukera ematen duen bideo instalazioa jarri da, eta, bestetik, Nabarraldeko 1813ko gertaeren inguruan sortutako dokumentalaren laburpena, orduko gizartera gerturaten gaituena. Era berean, 'Apaizac obeto' dokumentalaren trailerra ere jaso da.

Historiaren Etxeko erakusketaren atalak: *Donostiari begira* funtsean bere horretan mantentzen bada ere, badira hainbat aldaketa eta horrelakoa da egungo erakusketa.

Nortasun-ezaugarriak: Sarrera atal honetan, hiriaren nortasun ezaugarrietako batzuk modu laburrean azpimarratzen dira. Aipatzen diren gaiak ibilbidean zehar zabalduko dira. Gune honetan zegoen alabastroko San Sebastianen piezaren ordean, azulejoko 12 piezako sorta bat jarri da, Santuaren martirioa irudikatzen dutenak.

Urgullen gerizpean: atal honetan militarren eta zibilen arteko elkarbizitza jasotzen da, Donostia bizitzeko tokia izateaz gain defendatzeko hiria ere izan baita, eta bertako populazioa, behin eta berriro gertatzen ziren setio eta erasoetara egokitu zen.

Merkataritza-hiribildua: atal honetan hiriaren alderdi ekonomikoak agertzen dira, merkataritza azpimarratuta; izan ere, bere sorreratik itsasora begira egondako hiria baita, eta Erdi Aroan Kantauriko portu garrantzitsuena izandakoa. Hiriaren merkataritza jarduera indartzeko sortutako azpiegitura eta erakundeei begiratu bat egiten zaie, arrantza eta nabigazioa, ontziolak, kortsarioak; Kontsulatua eta Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarra; etabar.

Hiru aldaketa daude atal honetan:

-Itsasoa arriskutsua bihurtu zenean ontziak armez ongi hornitzen ziren, ibilbide komertzialak babesteko, Europako potentzien arteko gudatan parte hartzeko edota korsoan aritzeko. Aurten San Telmo Museoko bildumako itsas kanoiak erakutsiko ditugu. 2007 urtean museoaren kanoi bilduma apartaren zaharberritzea jarri zen abian eta egun pieza berriak Urgull mendian ikus daitezke. Erakusketan kanoi hauetako hiru jarri ditugu, oraintxe zaharberritutakoak.

-Itsasontzi mota ezberdinei buruzko azalpen laburrak gehitu ditugu, Donostiako Aquariumaren laguntzari esker. Donostiako lehenengo zigiluan azaltzen den ontzia XII. mende bukaeran portuz portu nabigatzeko erabili ohi zen. Orduz gero ontziolen industria

etengabe garatu da Erdi Aroko koka, naoak, galeoia... Gaur egungo Donostiako irudian daukagun ontzia, XVII. mendeaz geroztik dagoena, hiru bela laukidun fragata da, bizkorra eta nabigatzeko aproposa.

-Baiaeren ehiza eta bakailo arrantza Ternuan diru iturri garrantzitsua izan zen donostiarrentzat. Gure esku dagoen dokumentazio eta aztarna arkeologikoei esker, XVI. mendeko ontzia eta bidaia berregin daitezke eta horixe da Albaola elkarteak eta Orio produkzioak *Apaizac obeto* dokumentalean azaltzen dutena. Ekimen honek erakusketan bere txokoa izango du ikusentzunezko honen laburpen batekin, Albaola elkartearekiko elkarlanari hasera emanaz.

1813: 1813ko Donostia ere erakutsi nahi izan dugu, bigarren mendeurrena oroitzeko ekitaldiak pasata, eta urtemuga horren baitan sortutako materiala jasoaz. Motako gazteluan gai hau jorratzen duen espazioa zaharrenetarikoa den guardia gela da, kuartelak eta gobernadorearen etxea lotzen zituen erdi puntako gangadun harrizko aretoa.

Bertan duela berrehun urte izandako erreketak, suntsiketa eta berreraikuntzari buruzko ikusentzunezkoa jarri da ikusgai. Guda napoleonikoen gerra egiteko modu berri bati eman zioten hasera, gordinagoa, populazio zibilaren sufrimendua areagotzen zuena. Donostian ere hala jazo zen. Ikusentzunezko hau bigarren mendeurrenaren harira Nabarralde elkarteak sortutako "1813. Donostiako erreketak"-ren laburpena da.

Gotorleku izatetik hiri izatera: hiru esparru biltzen dituen atal honek XIX. mendetik aurrera Donostiak izandako aldaketa urbanistikoak, ideologikoak eta ekonomikoak jasotzen ditu, modernitaterako behin betiko garapenaren hasiera etorri eta itxura berria hartu zueneko.

Hemen ere zenbait aldaketa egin dira. Batetik, 1813ko setioari buruzko maketa berriz ere ikusgai jarri da. Bestetik, San Telmo Museoa badaude hiriaren sutean suntsitu ez ziren pieza batzuk. Hauen artean, 1813ko baxera eta Zubietako tintontzia balio historiko eta sinboliko handiko piezak dira, 2014ko urtarrila arte San Telmon "1813. Donostiaren setioa, sutea eta berreraikitzea" erakusketan ikusgai izan direnak.

- Lehenengoa, hiriaren sutean bertan urrutako baxera bat da. *Donostiari begira* erakusketan jarri dena, erreproduzio bat da. Hau egiteko, jatorrizko pieza sortzeko behar izan ziren baldintza berak birstutu dira labe batean.
- Zubietan bildutako donostiarrek hiria berreraikitzea erabaki zuten, Zubietako aktatan jasotako konpromezu bat hartuz. Akta hauek sinatzeko erabilitako tintontzia gordeta dago oraindik.

Kasu honetan ere, erreplika bat egingo dugu, eta horretarako objektuaren hiru dimentsiotako eskanerra egiten ari gara, jatorrizko tintontziak ahalik eta gutxien sufritu dezan. Erreproduzio prozesua amaitzerakoan pieza hori ere erakusketan jarriko da ikusgai.

200

Erakusketari amaiera emateko 200 bideo instalazioa egongo da ikusgai aurrerantzean Historiaren Etxean. San Telmo Museoan orain arte egon den lan honetan gure gizarte bizitzaz, gerrez, kulturaz, industriaz, kirolaz edota gastronomiaz diharduten 13 istorio jasotzen dira, mihise panoramiko batean proiektatuta. Bidaia didaktikoa, zorrotza, hunkigarria eta arina proposatzen digu ikus-entzunezko instalazio honek 2.000 irudiren bidez.

Ikus-entzunezko instalazio elkarreragilea eta parte hartzailea da: elkarreragilea bisitariak berak aukeratzen duelako ezagutu nahi duen garaia edo gaia; eta parte hartzailea, hiriko hainbat ikastetxetako 200 gaztek hartu duelako parte proiektuan.

San Telmo Museoan ikusgai egon denean museoaren fatxadan jarritako instalazioa, berriz, parte hartzaileen eskuetan jarriko da, ekimen honen oroigarri bat betirako izan dezaten. Parte hartzaileek, beraz, euren irudiak jasotzeko aukera izango dute hemendik aurrera Historiaren Etxean.

Informazio praktikoa:

Urgull mendiaren egoera

Urgulleko oinezkoentzako bide guztiak irekita egongo dira, Paseo Berriko sarrera ezik, azken denboraleak eragindako kalteak konpontzeko lanak martxan baitaude. Beraz, Urgull mendira joateko San Telmoko igoera, Aquariumekoa, Portuko sarrera eta Santa Teresa ondokoa erabili ahal izango dira.

Dena den, Parke eta Lorategietako zerbitzua garbiketa lanak egiten eta zuhaitz batzuk erretiratzen ari da, ondorioz bideek aldizka mozketak izan ditzakete.

Historiaren Etxea

NEGUKO ORDUTEGIA

Ekainak 30 arte eta berriro irailetik aurrera: asteazkenetik igandera, 10:00 – 17:30

Aste Santuko oporraldian (apirilak 14 - 27), astelehenetik igandera, 10:00 – 17:30

UDAKO ORDUTEGIA

Uztailak 1etik abuztuak 31ra, astelehenetik igandera, 11:00 – 20:00



Se reabre la exposición “Mirando a San Sebastián”

El Monte Urgull, monte situado en el corazón de la ciudad y mirando a esta y al mar, es un lugar muy querido por los donostiarras. Esta zona natural es un perfecto testigo de todo lo acontecido en la ciudad y aún conserva restos históricos como una red de rutas y fortificaciones, sin olvidar que muchos la conocen como el “castillo”. El castillo La Mota es una excepcional atalaya y en ella se encuentra, hoy en día, la casa que recoge nuestro patrimonio, la Casa de la Historia.

Mañana se reabre la exposición *Mirando a San Sebastián*. La muestra recorre la historia de la ciudad, su desarrollo económico, urbanístico, social y cultural, haciendo referencia a la identidad vasca. La exposición es por tanto una gran oportunidad para conocernos mejor y profundizar en nuestra historia contemporánea.

La Casa de la Historia está abierta a los donostiarras y todos aquellos visitantes que quieran conocerla. En los últimos años han sido muchos los que han pasado por Urgull. Al año tiene una media de 100.000 visitantes, y tiene además su propia oferta didáctica. En este sentido, es una buena manera de acercar la historia a los jóvenes y que las nuevas generaciones también conozcan la historia de la ciudad, a través del aprendizaje y el entretenimiento.

Tras el cierre de diciembre la muestra se ha enriquecido renovando algunos espacios, siempre con el objetivo de presentar el patrimonio de forma atractiva. Se ha mantenido la estructura y el discurso de la muestra en lo fundamental, y se han actualizado algunos apartados, principalmente los relacionados con la quema, destrucción y reconstrucción de la ciudad, con el material del bicentenario como eje. Así, algunos de los audiovisuales creados al hilo del centenario se integran en el discurso permanente.

Por un lado, la vídeo-instalación 200 ofrece la posibilidad de conocer desde distintos puntos de vista, el pasado, y de boca de 200 jóvenes donostiarras, el pasado, presente y futuro de la ciudad. Por otro, el resumen del documental sobre los sucesos de 1813 realizado por Nabarralde nos familiariza con la sociedad de entonces. Del mismo modo, se ha recogido el trailer del documental 'Apaizac obeto'.

Partes de la exposición: *Mirando a San Sebastián* se mantiene, en lo fundamental, tal y como lo recordamos, aunque hay algunos cambios:

Señas de identidad: en esta parte introductoria, se explican de forma breve algunas de las señas de identidad de la ciudad. Los temas que se mencionan se amplían a lo largo del recorrido. En lugar de la pieza de San Sebastián de alabastro que se encontraba en este espacio, se ha colocado un azulejo de 12 piezas que representa el martirio del santo.

A la sombra de Urgull: en esta sección se presenta la convivencia entre los militares y los civiles. Esta ciudad, además de ser un lugar para vivir también ha sido un lugar de defensa y la población local se adaptó a los sitios y continuos ataques.

Villa mercantil: en esta parte se abordan los aspectos económicos de la ciudad, destacando el comercio ya que desde sus inicios ha sido una ciudad que mira al mar y en la Edad Media llegó a ser el puerto más importante del Cantábrico. Se observan las infraestructuras creadas para fortalecer el comercio de la ciudad y las organizaciones, pesca y navegación, astilleros, corsarios; Consulado y Real Compañía Guipuzcoana de Caracas, etc.

Se han realizado tres cambios en este apartado:

- Cuando el mar se volvió peligroso las embarcaciones se abastecían bien de armas para proteger la ruta comercial, para participar en las guerras entre las potencias de Europa o salirse a corso. Este año, mostraremos los cañones marítimos de la colección del Museo San Telmo. En 2007 se puso en marcha el plan de renovación de la excepcional colección de cañones del museo y hoy pueden verse las piezas restauradas en el monte Urgull. En la exposición hemos colocado tres de estos cañones, recién renovados.
- Hemos añadido breves explicaciones a distintos tipos de embarcación, gracias a la ayuda del Aquarium de San Sebastián. La nave que aparece en el primer sello de Donostia se solía utilizar para navegar de puerto en puerto en el siglo XII. Desde entonces la industria astillera se encuentra en continuo desarrollo: coca de la Edad

Media, naos, galeones... La nave que aparece en el escudo desde el siglo XVII es una fragata de tres velas cuadradas, rápida y apropiada para navegar.

- La caza de ballenas y la pesca de bacalao en Terranova era una importante fuente de ingresos para los donostiarras. Gracias a la documentación y fuentes arqueológicas se pueden reconstruir los viajes y embarcaciones del siglo XVI y es precisamente lo que muestran la asociación Albaola y Orio producciones en el documental *Apaizac obeto*. Este iniciativa tendrá su espacio en la exposición junto con un resumen del audiovisual, dando comienzo así a la colaboración con la asociación Albaola.

1813: Hemos querido también mostrar como era Donostia en 1813, una vez concluidas las conmemoraciones del bicentenario y habiendo recogido el material creado para el aniversario. Es en la sala guardia del castillo La Mota, una de las más antiguas, donde se trata este tema. Un espacio de piedra que unía, en su momento, el cuartel y la casa del gobernador.

Aquí es donde se ha instalado el audiovisual sobre el incendio, asedio y reconstrucción de la ciudad que tuvo lugar hace doscientos años. Las guerras napoleónicas iniciaron una nueva forma de hacer la guerra, más cruda y que acrecentaba el sufrimiento de la población civil. En San Sebastián también ocurrió así. El audiovisual "1813. Donostiaren erreketeta", dentro de las iniciativas relacionadas con el bicentenario, es un resumen del que creó la asociación Nabarralde.

De fortaleza a ciudad: en este apartado que une tres ámbitos se recogen los cambios urbanísticos, ideológicos y económicos vividos en Donostia a partir del siglo XIX, cuando llegó el comienzo definitivo para el desarrollo de la modernidad y nueva imagen.

En este apartado también ha habido cambios. En primer lugar, se ha vuelto a incluir la maqueta del sitio de 1813. Asimismo, el Museo San Telmo cuenta con unas pocas piezas que no fueron destruidas en el incendio, entre ellas la vajilla de 1813 y el tintero de Zubieta. Son piezas de gran valor histórico y simbólico que han estado expuestas en "1813. Asedio, incendio y reconstrucción de San Sebastián", hasta enero de 2014.

- La primera pieza es una vajilla que se fundió en el propio incendio. La que se muestra en Urgull es una reproducción. Para crearla se han reconstruido en un horno condiciones similares.
- Los donostiarras reunidos en Zubieta decidieron la reconstrucción de la ciudad, firmando un compromiso recogido en las actas de Zubieta. Aún se conserva el tintero empleado en la firma de aquellas actas. En este caso se está realizando una réplica, empleando para ello un escaneado tridimensional para que la pieza sufra lo menos posible. Una vez finalizado el proceso de reproducción la réplica será incorporada a la exposición

200

La vídeo-instalación 200 concluirá la visita en la Casa de la Historia. Este trabajo que hasta ahora se ha podido ver en el Museo San Telmo se proyectará en un lienzo panorámico en el que 13 historias escogidas hablarán sobre nuestro modo de vida en sociedad, guerras, cultura, industria, deporte o gastronomía. La vídeo-instalación nos ofrece cerca de 2000 imágenes que proponen un recorrido didáctico, riguroso, emocionante y ameno.

Es un audiovisual interactivo y participativo: interactivo porque es el propio visitante quien elige qué tiempo o época quiere conocer y participativo porque han colaborado en él un total de 200 jóvenes de distintos centros escolares de la ciudad.

El audiovisual se anunció en la fachada del Museo San Telmo durante el periodo en el que estuvo expuesto a través de una instalación que ahora se pondrá en manos de sus participantes a modo de recordatorio. Por lo tanto, todas las personas que participaron en 200 podrán pasar por la Casa de Historia para recoger la imagen que les corresponde.

Información práctica

El estado del monte Urgull

Estarán abiertos todos los caminos para los peatones, excepto la entrada al Paseo Nuevo ya que los trabajos por los daños causados por el último temporal están en marcha. Por lo tanto, para subir al monte Urgull se podrán utilizar la subida desde el Museo San Telmo, desde el Aquarium, la entrada del puerto y la de Santa Teresa.

En cualquier caso, los servicios de Parque y jardinería están llevando a cabo trabajos de limpieza y retirando algunos árboles. Por lo tanto, el camino puede quedar cortado intermitentemente.

Casa de la Historia

HORARIO INVIERNO

Hasta el 30 de junio y otra vez a partir de septiembre, de miércoles domingo: 10.00 – 17.30

Vacaciones Semana Santa (abril 14-27), de lunes domingo, 10.00 – 17.30

HORARIO VERANO

Del 1 de julio al 31 de agosto, de lunes a domingo, 11:00 – 20:00